



HAL
open science

Antipasiboaren lekua oraiko zubereran

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

| Jean-Baptiste Coyos. Antipasiboaren lekua oraiko zubereran. pp.181-193. artxibo-00000007v2

HAL Id: artxibo-00000007

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000007v2>

Submitted on 19 Dec 2005

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

P. Lafitteren sortzearen mendemuga

ANTIPASIBOAREN LEKUA ORAIKO ZUBERERAN

I. SARRERA

Ikerlan honetan erakutsi nahi dut pixka bat zoin diren *ibilbide diatetikoak* oraiko zubereran, bereziki pasibo eta antipasiboak deituko ditudanak, eta batez ere nola erabiltzen diren testu ahozkoetan bai eta ere idazkietan. Prefosta emaitzen ekarpenak zuhurki preziatuak izan behar dira zeren testu hanitx ez beitut ikertu ; bainan halarik ere uste dut interesgarriak eta baliodunak direla. Lehen zatian gramatikazko xehetasun batzu aurkeztuko ditut hori laburzki, zer den ibilbide diatetiko bat nere ikusmoldearen arabera, zertako ibilbide pasibo eta antipasibo mota noziak onartzen ahal diren euskararen deskribapen batetan, etab.

Bere *Grammaire basque* delakoaren 486. lerroaldean hori da Lafitte kalonjeak ez duena baizik erraiten egitura antipasiboei buruz : « Dans la langue actuelle, le participe passé employé adjectivement a d'ordinaire un sens intransitif ou passif... Dans les textes anciens, le sens actif n'était pas rare... Actuellement, il reste des vestiges de cet état de choses », 226. orrialdean. Antipasiboaren adibide batzu emaiten ditu. Alderantziz 342. orrialdetik 344. orrialderat erraiten du : « Il n'y a pas plus en basque qu'en français de conjugaison passive particulière ». Hori erran ondoan, Lafittek *maitte* aditzaren pasibo egituren taula oso bat emaiten du, *maitatua izan* deitua.

Ikus dezagun bi egituren egoera zubereran.

II. GRAMATIKAZKO XEHETASUN BATZU

II. 1 *-ik* eta *-a* atzizkiei buruz :

Laburzki erranen dugu **izenondoak** kalitate bat adierazten duela, alderantziz aditzak eta beraz **partizipioak** ere bai jokabide bat adierazten dutela. Zubereran partizipioak *-ik* atzizkia badu, aspektu marka bat da. Izenondoak *-a* atzizkia badu. *-a* atzizkia partizipioari lotua onartua da bainan ez da enplegatzen. Ikertu ditudan idazleen testuetan Davant-ek baizik ez du erabiltzen *-a* atzizkia partizipioarekin (*Xiberoko makia trajeria*, 2001). So egin dezagun II.3 zerrendako bi adibideei :

(1 b) ...*ardiak artzainek bazter utziak* (Davant 40 orr.).

(2 a) ...*gure lana da hasia* (Davant 86 orr.).

Ikertu ditudan ahozko testuetan hori ez da sekula gertatzen. Izen sintagman *-ik* atzizkia erabilia da ezezko perpausetan eta beste perpaus batzuetan, testuinguru hortan **partitiboa** deitzen da. *-ik* atzizkia erabilia da aditzarekin ere bainan perfektu adierarekin beti aspektu burutu atzizkiaren ondoan, **perfektua** deitzen dugu.

Erran nahi du pasibo eta antipasibo egituretan bi aspektu atzizki ditugula perfektu marka duten partizipioekin, lehen adibidean bezala :

(1 a) *Apaltürük bere belaiñetan...* (Casenave- Harigile, *Basabürüko ipuinak* 16 orr.).

Apal-tü (aspektu burutua) gehi *-rik* (aspektu perfektua). Hori ontsa ezaguna da.

Beraz erraiten ahal dugu «partizipioa, aditz adjetibo bat besterik ez da», Euskaltzaindiaren *Euskal gramatika* bezala (*Lehen urratsak I* 164. orrialdean). Bainan ez dugu ahantzi behar izenondoaren eta partizipioaren semantikazko ekarpenak berak ez direla eta ez ere horien atzizkiaren tankera desberdina dela zubereran, *-a* alde batetik, *-ik* bestean.

II. 2 Pasibo eta antipasibo egitura mota badea ? – Ibilbide diatetikoak

Orai ere ez naiz luze izanen. Hasteko aipa dezagun Euskaltzaindiaren *Euskal gramatika Lehen urratsak-I* 222. orrialdean : « Hizkuntza aunitzen sintaxiaren ardatza nominatibo-akusatibo sistemari oinarritzen da... esan daiteke euskararen sistemaren ardatza absolutu-ergatiboa dela... eta zenbait fenomeno, hala nola aktiboa eta pasiboa kontrajartzea, sistema batean gertatuko dela, baina ez bestean. Euskaraz ez dugu *diatesi*-rik (erderetako *pasiboa*) ». Nik ez nuen hori erranen. Euskararen sistemaren ardatza absolutu-ergatiboa balinbada, egitura antipasiboa edirenenez gake. Eta hori da gertatzen dena ikusiko dugun bezala. Bainan horrek ez du erran nahi egiazko egitura pasiboak direla grekeran bezala adibidez, bainan egitura pasibo eta antipasibo motazko ibilbideak badirela aztertzen dudana euskalkian, zubereran. Eta hori ez da harrigarria. Euskalarietarik batzuek hori aipatu eta deskribitu zuten ; Georges Rebuschi-k bereziki bizkaiera ikertzen zuenean antipasibo adibide batzuek emaiten zituen eta haintzat hartzen zituen (1979).

Erran behar dut nere gaurko gogoia ez dela euskararen sintaxiaren zehaztatzea edo ez ere ikusmolde tipologiko bat eman nahi dudala, bainan guti gora behera ikustea zoin eta zozbat diren diatesi ibilbideak oraiko zubereran, egitura motak eta horien maiztasuna. *Ibilbide diatetiko* erranmolde hori Bernard Pottier-i jasaiten diot, frantsesez « *parcours diathétique* » (ikus, *Sémantique générale*, 134tik-153ra). **Jasankor** bat eta **egile** batekilanko jokabide bat har dezagun : jokabide hori jasankorarengatik egilearengatik ikuskatzen ahal da, ibilbide pasiboa deituko dut, edo egilearengatik jasankorarengana, ibilbide aktiboa edo antipasiboa deituko dut, edo jasankorarengatik egilea aipatu gabe edo ere egilearengatik jasankorra aipatu gabe. Horiek dira ibilbide diatetikoak deitzen direnak. Egitura horiek aditz iragankor baten beharra badute, ibilbide pasibo eta antipasiboekin aditza iragangaitza bilakatzen da. II.1 zatian aipatu dudana bezala aspektu perfektu atzizkia aspektu burutarekilanko aditzari lotzen da.

Artikulu honetan ez ditut **pasibo** eta **antipasibo ibilbideak** aipatuko baizik. *Le parler basque souletin des Arbailles* liburuan ibilbide diatetiko desberdinak oraiko zubereran bilatu nituen, ikus 9garren atala.

Euskaltzaindiaren *Euskal gramatika* irakurtzen ahal dugu ere : « euskal literaturan instrumentala erabiliaz ere ageri dela *egilea* behin baino sarriagotan », 227garren orrialdean. « *Pseudopasibo* dei genitzake », 227 orr. Ikertu ditudan testuetan ohartu dut **ergatibo kasua** instrumentala baino maizago erabiltzen dela :

(1 b'') *Sartzen zen harro harroa... ülünak atzamanik* (Quéheille 59 orr.)

Azpitarratu nahi dut ere aztertu ditudan zuberotar testu idatzi edo ahozkoak itzulpenak ez direla. Behin ere *-ganik* kasua ediren dut egilea erakusteko, beste aldi batez *-ri esker* postposizioa :

(2 b'') *...nola ohoratürrik izan den Uthurburu Barkoxtarren ganik* (Quéheille 95 orr.).

(2 b''') *Denen lan honari esker libratürrik da Pettarra* (Davant 126 orr.).

Subjektu eta objektu gramatikazko nozioak ez ditugu hemen erabiliko, ez baita gure kezka. **Egile** eta **jasankor** semantikazko nozio orokorrak erabiliko ditugu xehetasunetan sartu gabe.

Xehetasun orokor horien bukatzeko erran behar dut *izan* kopulan tempusa, modua, pertsona (lehen pertsona adibide honetan : (2 a') *Salaturik izan beniz...* (Davant 112 orr.) eta noiztenka ere forma alokutiboa agertzen direla. Casenave-Harigilek *egon* aditza ere erabiltzen du *izan* kopularen orde bainan *izan* kopula baino eskasago. Ikus 2 a) : *elürra zapatürrik zegon* (Casenave 46garren orrialdean)¹.

II. 3 Egitura mota desberdinak

So egin dezagun orai edireiten ahal diren egitura mota desberdinei. Egitura desberdinak irizpide sinplen arabera sailkatuko ditugu egitura aktiboak utziko ditugula jakinez. Alde batetik izen sintagmaren barnean diren partizipioak, erran nahi du kopularik gabe aditz forma perfektuak kontatuko ditugu, eta bestalde kopularekin errabiltzen diren aditz forma perfektuak. Begiemanen dugu batera egilea eta / edo jasankorra markatuak diren izen edo izenordain batez.

So egin dezagun orain adibideei.

1 Pasiboa kopula gabe :

Egilerik gabe :

(1 a) *Apaltürrik bere belaiünetan...* (Casenave 16 orr.)

(1 a') *Gaztaina zonbaitekin goizean goizik bildürrik* (Quéheille 7 orr.)

Egilearekin :

(1 b) *...gütün bat semeak igorrik* (Quéheille 73 orr.)

(1 b') *...ardiak artzainek bazter utziak* (Davant 40 orr.)

(1 b'') *Sartzen zen harro harroa... ülünak atzamanik* (Quéheille 59 orr.)

(1 b''') *...mündü oroz ahatzerik* (Davant 30 orr.)

2 Pasiboa *izan* kopularekin :

Egilerik gabe :

(2 a) *elürra zapatürrik zegon* (Casenave 46 orr.)

(2 a') *Salaturik izan beniz...* (Davant 112 orr.)

(2 a'') *Barkoxeko herriari üstartürrik da Etxahun* (Quéheille 3 orr.)

(2 a''') *...gure lana da hasia* (Davant 86 orr.)

Egilearekin :

(2 b) *Ihiztekako errabiak hartürrik zen* (Casenave 59 orr.).

(2 b') *...amak... arrenkürak janik direla* (Casenave 60 orr.).

(2 b'') *...nola ohoratürrik izan den Uthurburu Barkoxtarren ganik* (Quéheille 95 orr.)

(2 b''') *Denen lan honari esker libratürrik da Pettarra* (Davant 126 orr.)

3 Antipasiboa kopula gabe :

Jasankorrik gabe :

¹ Xehetasun gehiago ukaiteko pasibo eta antipasibo egiturei buruz ikus nere argitaratzeko den artikulua *Parcours de type passif et antipassif...*

(3 a) ...amiratürrik... entzuten züan historio zonbait (Casenave 46 orr.)

Jasankorreakin :

(3 b) Zer nahi sofritürrik heltzen niz Xiberoala (Quéheille 65 orr.)

(3 b') Zer nahi ikusirik... ezkapi niz (Quéheille 69 orr.)

4 Antipasiboa izan kopularekin :

Jasankorrik gabe :

(4 a) Mezperan ontsa janik beit ginen... (1. eleketan)

Jasankorreakin : ez

Jasankorreakilanko antipasibo mota adibiderik ez dut ediren. Hori ez da hain estonagarri. Antipasiboaren ekarpen semantikoa egilearen kalifikazioa dela azpimarratu nahi nuke. Egilearen kalifikazio hori aditz perfektuak adierazten duen jokabidearen bidez egiten da. Jasankorreakin aipatzea ez da beharrezkoa. Eta gainera antipasibo egitura motak bakan dira gibelego bi tauletan ikusten dugun bezala.

II. 4 Antipasiboak ez diren bi egitura

II.4.1 ari izan egitura mota

Zati horren bururatzeko nere ustez bi egitura antipasiboak ez direnak aurkeztu nahi nituzke. Lehena da *ari izan* forma konposatuarekilanko egitura. Hizkuntzalari batzuek antipasibotzat hartu dute, Jacques Boulle adibidez. Forma horiek « formes antipassives de l'inaccompli » deitzen ditu (1987, 109-110 orr.). So egin dezagun adibide horri :

(5 a) *Gehienak ari ziren etxekoen lagüntzen* (bakarrizketa). Egilea_{ABS}+Iragankorra_{GEN}.

Egia da antipasiboaren itxura duela. (5 a) adibidean aditz iragankorra, hemen *lagüntü*, aditz iragangaitza bilakatzen da *izan* aditz laguntzailearekin (*ziren*). Egilea aipatzen duen izenak, hemen *gehien*, kasu absolutiboa (ABS \emptyset) badu eta ez ergatiboa (ERG *-k*) ibilbide aktiboan bezala (5 b)². Hori izanen zen :

(5 b) *Gehienek etxekoak lagüntzen zütien*. Egilea_{ERG}+Iragankorra_{ABS}.

Bainan (5 a) adibidean lehen desberdintasuna antipasiboari konparatuz da iragankorra aipatzen duen izenak, hemen *etxeko*, kasu genitiboa (GEN *-en*) baduela eta ez absolutiboa (ABS \emptyset). Erran behar da ere zubereran *ari izan* egitura hori biziki erabilia dela antipasiboaren aitzitik, *ari izan* egituraren ekarpen nagusia aspektu ez bururatu mugagabea delakotz. *Ari izan* egituraren bidez aspektu balio bat emaiten da, hain xuxen ez bururatuaren mugagabea. Aditzak aipatzen duen prozesua ez da errepikakorra. *Ari izan* formarekin prozesua kalifikatzen da eta ez egilea edo jasankorra ibilbide antipasibo edo pasiboaz bezala.

Aspektua ez da bat ere antipasiboaren ekarpen nagusia. Gorago erran dugun bezala antipasiboaren ekarpen nagusia aditzak aipatzen duen jokabide baten bidez egilearen kalifikatzea da. Ez gaude aspektu alorrean.

² Euskaltzaindiaren *Euskal gramatika Lehen urratsak-II* liburuan Iparraldeko egitura erabili hori ez da aipatua (437-440 orr.)

II.4.2 Beste antipasibo egitura mota ?

Lafitteren sortzearen mendemuga karia horretan bere Antipasiboak euskararen delakoaren txostenean Rudolf P. G. de Rijk-ek beste antipasibo egitura mota bat aztertu du. Aurkeztuko dut laburzki zertako aipatzen duen egitura ez dela nere ustez antipasibo egitura mota bat, zertako antipasibo ibilbiderik ez dela emaiten dituen adibideetan. Oraiko zubereraren ere bai emaiten dituen adibide zenbait edireiten ditugu eta egitura horietan sartzen diren holako aditzak « verbes à marquage casuel variable » deitzen ditut. Har dezagun beraz zubererazko adibide bat *orit* aditzarekin (ikus Coyos, 2000, 347-350) :

(6 a) *Aitak orit dü historia*. Egilea_{ERG}+Iragankorra_{ABS}.

(6 b) *Aita orit da historiaz*. Egilea_{ABS}+Iragankorra_{INST}.

Bi adibideak konparatuz ohartzen gara aditz laguntzailea kanbiatua dela. (6 b) bigerrenean *izan* laguntzailea da eta egilea aipatzen duen izenak, hemen *aita*, kasu absolutiboa (ABS \emptyset) badu, pasibo edo antipasibo egituretan bezala, eta ez ergatiboa (ERG *-k*). Bainan aspektu marka ez da bat ere kanbiatua, bi aspektu atzizkiak ez ditugu eta bereziki *-ik* atzizkia ez da agertzen (ikus II.1) antipasibo egituretan bezala.

Horrek erran nahi du bi adibideetan ibilbide diatetikoa bera dela. (6a) eta (6 b) adibideetan ibilbide diatetikoa aktiboa da eta bigerrenean egitura antipasiboa ez da de Rijk-ek baieztatzen duen bezala. (6b) adibidean ere bai ibilbidea aktiboa da. Haatik horrek ez du erran nahi bi adibideen ekarpen semantikoa bera dela ; bigerrenean egilea, *aita*, lehenean baino jasaileago da, haren oroitzea ez da hain nahizkoa.

III. PASIBO ETA ANTIPASIBO EGITURA MOTAK AHOZKO TESTU BATZUETAN

Egitura bakoitzaren maiztasuna neurtu nahi nuen. Hortakoz adizki jokatuak eta bai ere adizki ez jokatuak zenbatu behar nituen testu desberdinetan. Grabatu nituen ahozko testuetan lan aspergarri hori 11 minutuzko bakarrizketa batetan eta bi 30 minutuzko eleketatan bururatu dut. Sarreran erran dudana bezala emaitzak erakuspenak dira eta hori gogoan begiratu behar dugu. Bakarrizketan mintzalaria Mendi herriko 75 urtezko emazte bat da. Bi eleketetan ber emaztea eta haren 77 urtezko anaia baditugu.

Lehen taula har dezagun. Bi kondu mota desberdin egin ditut :

- Lehenik **adizki jokatuak** (*izan* kopula barne eta bai ere *ari izan* egitura) eta horien artean 2 izen edo 2 izenorde edo izen bat eta izenorde bat dituzten aditz iragankorrak zenbatu ditut. Ehunekoek erakusten dute nola adizki jokatu horiek bakan diren. Orotara 850 aditzetatik 47 aditz iragankor 2 izen edo izenordekin ediren ditut, ehunetako 5 kakotx 5.
- Bigerrenek **pasibo eta antipasibo ibilbide motak** zenbatu ditut ondotik ikusiko dugun bigarren taulan bezala. Ohartzen dugu ere bai bakan direla eta antipasibo ibilbidea pasibo ibilbidea baino eskasago dela. Azken ibilbide hori behin baizik ez dut ediren, 4 b) adibidea : *Mezperan ontsa janik beit ginen...* 31 pasiboetarik 11 adizki jokatu badira, erran nahi du *izan* kopularekin, eta oroek egilerik gabe. Hain ikaragarria ez balinbada ere, pasiboaren maiztasuna ohargarria da.
- Hots antipasibo ibilbidea kasik falta da. 850 aditzetatik bat baizik ez da eta *izan* kopula gabe antipasibo ibilbiderik ez da, izen sintagma batetan erran nahi baita, hori oren bat eta 11 minutuzko solasaldi batetan.

Beraz pasibo eta antipasibo ibilbide diatetikoan leku tipia azpimarratu behar dugu, euskalki honetan bederen hemengo emaitzak orotarazten balinbaditugu. Txosten honen ondoko zatian ikusiko dugu zuberotar idazkietan emaitzak guti gora behera berak direla. Ibilbide diatetiko horien maiztasuna apala da.

Zuberoko hiztunentzat ibilbide horiek karioegi ote dira ibilbide aktiboaren eretzeari? Aditz jokatuaren aspektu sistemaren erabilera egile eta jasankorraren hierarkiaren azpimarratzea baino garrantzitsuago ote da? Oroitarazten dut pasibo eta antipasibo ibilbideen lehen baliotasuna da egilea ala jasankorraren nolakotasunaren zehaztatzea jokabide baten bidez. Gertakizunaren iraupena, burutzea, errepikapena, hots aspektua ibilbide aktiboaren bidez emaitzen ahal da ere bai. Ez da hori pasibo eta antipasibo ibilbideen berezitasuna. Ikusi dugu nola ibilbide horien egitura bi izen edo izen eta izenorde sintagmak bakan direla. Pasibo eta antipasibo ibilbide diatetikoan berezitasuna dela erran nahi baita.

1. TAULA

<i>Perpau motak</i>		Bakarrizketan	1. eleketan	2. eleketan	Kopurua	%
Adizki jokatuak (izan kopula barne)		119	373	358	850	100
Aditz iragankorra	2 izen	4	10	6	20	2,35
	izen + izenorde	3	18	3	24	2,82
	2 izenorde	0	2	1	3	0,35
Pasiboa kopula gabe	Egilerik gabe	0	2	10	12	
	Egilearekin	2	2	3	8	
Pasiboa izan kopularekin	Egilerik gabe	0	0	11	11	1,29
	Egilearekin	0	0	0	0	0
<i>Pasiboa orotara</i>					31	
Antipasiboa kopula gabe	Jasankorrik gabe	0	0	0	0	
	Jasankorrirekin	0	0	0	0	
Antipasiboa izan kopularekin	Jasankorrik gabe	0	1	0	1	0
	Jasankorrirekin	0	0	0	0	0,11
<i>Antipasiboa oro.</i>		0	1	0	1	
<i>Pasiboa eta antipasiboa kopularekin izan</i>		0	1	11	12	1,41

Taulatik ez ateratu den azken ohar bat biziki garrantzitsua da nere ustez. Galde egin dieran xiberotar hiztunen ustez **antipasibo erranaldiak gisakoak dira** eta **pasiboak bat ere egokiak**, bereziki egilearen eta jasankorraren izenekin pasibo erranaldiak edo pasibo perpausak, hori hiztuna laborari bat ala ikastolako zuzendaria izan dadin. Haatik ikusten dugu pasiboa antipasiboa baino maizago erabiltzen dutela.

IV. PASIBO ETA ANTIPASIBO EGITURA MOTAK IDAZKI BATZUETAN

Lehenik erran behar dugu zubererazko idazlanak bakan direla: kantu hanitx, pastoral bat edo biga urte oroz, idazle batzuen idazkiak, horien artean Junes Casenave-Harigilenak, eta bi kronika aldizkarietan, Jean-Louis Davant-ena *Herria* astekarrian eta Ximun Peyran-en eledersaila *Miroir de la Soule* delakoan. Bi pastoral, Patrick Quéheille-n *Herriko semeak* *pastorala* eta Jean-

Louis Davant-en *Xiberoko makia trajeria* hautatu ditut eta bai ere Junes Casenave-Harigile-n *Basabürüko ipuinak* liburua. Ahozko testuekin egin dudak bezala, pasibo eta antipasibo motako ibilbideak aztertu ditut. Eta gero pasibo eta antipasibo egiturak kopula gabe eta *izan* kopularekin zenbatu ditut testu horietan.

So egin dezagun beraz bigarren taulari. Markatua hitzak erran nahi du izen bat edo izenorde bat badela, koreferentziaz markatuak diren perpausetan ez da izenik edo izenorderik.

2. TAULA

<i>Pasibo antipasibo ibilbideak</i>	<i>eta</i>	<i>Egilea Jasankorra</i>	<i>eta</i>	<i>Marka</i>	<i>Quéheille</i>	<i>Davant</i>	<i>Casenave -Harigile</i>	<i>Kopurua</i>
1 Pasiboa kopula gabe	a) Jasankorra (egilerik gabe)	Koreferentziaz			10	3	15	28
		Markatua			20	9	28	57
	b) Jasankorra (egilearekin)	Koreferentziaz			4	3	14	21
		Markatua			1	3	2	6
2 Pasiboa <i>izan</i> (edo <i>egon</i>) kopularekin	a) Jasankorra (egilerik gabe)	Koreferentziaz			3	0	11	14
		Markatua			2	0	10	12
	b) Jasankorra (egilearekin)	Koreferentziaz			1	0	6	6
		Markatua			0	1	2	3
<i>Pasiboa orotara</i>				41	19	88	148	
3 Antipasiboa kopula gabe	a) Egilea (jasankorrik gabe)	Koreferentziaz			0	0	1	1
		Markatua			0	0	0	0
	b) Egilea (jasankorreakin)	Koreferentziaz			2	0	0	2
		Markatua			0	0	0	0
4 Antipasiboa <i>izan</i> kopularekin	a) Egilea (jasankorrik gabe)	Koreferentziaz			0	0	0	0
		Markatua			0	0	0	0
	b) Egilea (jasankorreakin)	Koreferentziaz			0	0	0	0
		Markatua			0	0	0	0
<i>Antipasiboa oro.</i>				2	0	1	3	
<i>Orotara</i>				43	19	89	151	

Pastoraletan errimaren eta neurtitzen luzetasunaren hersturarengatik adizki jokatu aditzlaguntzailearekin edo kopularekin guti dira.

Quéheillek pasibo eta antipasibo ibilbideak Davantek baino gehiago erabiltzen ditu. Ahozko testuetan ikusi dugun bezala, pasibo motako ibilbideetan jasankorra egile markaturik ez denarekin da egitura usuen. Ohartzen dugu ere bai antipasibo ibilbidea pasibo ibilbidea baino eskasago dela. Orotara hiru adibide (3a, 3b, 3b').

V. ONDORIOA : SINKRONIA DINAMIKOA ETA DIAKRONIA

Bere *Grammaire basque* delakoan Pierre Lafittek erraiten zuen manamendu bat bezala : "On ne se sert pas beaucoup du passif en basque. Il vaut mieux tourner par la conjugaison active", 344. orrialdean. Gure ikerketak erakusten du sinkronian pasibo motako egiturak erabiliak direla. Haatik frantses erranaldi baten itzulpena galdatzen balinbadut nere usaiako zuberotar hiztunei, maiz bainan ez beti, euskal aktibo erranaldi bat emaiten didate, beste zenbaitek pasiboa eta aktiboa eta besteek pasiboa bakarrik.

Molde batez Lafitte arrazoi zen pasiboa eta antipasiboaren erabilia eta maiztasanari buruz (ikus I. Sarrera). Bainan erran behar dut antipasibo egituren hatzak baino gehiago baditugula zubereran eta hitzunen **hizkuntz kontzentzian** antipasiboa ez dela bat ere galdua. Eta hori ez da frantsesaren eraginari lotua. Alderantziz pasiboaren leku handigoa hitzunen elebitasunari lotua da. Dударik ez da. Hizkuntza kanbiatzen ari da. Ohar horiek hizkuntzalaritzaren alor berezi batetan sartzen dira, **sinkronia dinamikoa**³. Konturatu behar da sinkronia mugiezina ez dela.

Laburbilduz, euskalarietarik gehienek ez dute uste diatesia badela euskarari, ikus adibidez hastepenean aipatu dugun Euskaltzaindiaren ikusmoldea (ikus ere Coyos, agertzeko). Halere zubererazko pasibo eta antipasibo motako egitura adibide batzu ediren ditugu ahozko eta bai ere idatzizko testuetan. Antipasibo adibideak bakan dira bainan egokiak hitzunen ustez. Alderantziz pasiboak ohikoak dira bainan ez egokiak horien arabera. Sinkronian pasiboa eta antipasiboaren algar biziak erranarazten du **pasiboaren lekua zabaltzen ari dela**, aldiz **antpasiboarena apaltzen**. Hori ez da agertzen hitzunen hizkuntz kontzentzian bainan bai haien hizkuntzaren praktikan. Behaketa horren ondorioa da antipasibo egitura euskararen egitura zahar bat litzatekela eta pasibokoa alderantziz egitura berri bat. Azken ohar hori diakroniaren alorrean kokatzen da.

Ikerketa horri esker erakutsi nahi nuen zenbat oraiko testuen miaketa garrantzitsua zela euskara hobeki ulertzeko. Espero dut kausitu dudala. Hizkuntz baten egituren aztertzea baharrezkoa da hori teoria baten bidez eta teoria baten kokalekuan. Bainan hurbiltze hori ez da nahikoa egitura horien pisua neurtua ez balinbada erabilia den hizkuntzan. Hortakotz ahozko testu eta idazki desberdinen aztertzea baitezpadakoa da orokor eta argigarri izan nahi den hizkuntzalaritza batetan.

AIPAMENAK

- BOULLE Jacques, 1987: « Aspect et diathèse en basque », *Actances*, 3, Paris, C.N.R.S., R.I.V.A.L.C., p. 86-121.
- CASNAVE-HARIGILE Junes, 1997, *Basabürüko ipuinak*, Baigorri, Izpegi, 94 orr.
- COYOS Jean-Baptiste, 1999, *Le parler basque souletin des Arbailles – Une approche de l'ergativité*, Paris, L'Harmattan, 432 orr.
argitaratzeko, Parcours de type passif et antipassif en basque souletin parlé actuel, *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, XCVI, Paris – Louvain, Peeters.
- DAVANT Jean-Louis, 2001, *Xiberoko makia trajeria*, Sohüta, 206 orr.
- EUSKALTZAINDIA, 1987, Gramatika batzordea, *Euskal gramatika Lehen urratsak-II*, Bilbo, Euskaltzaindia / R.A.L.V. , 522 orr.
1991, Gramatika batzordea, *Euskal gramatika Lehen urratsak-I*, Bilbo, Euskaltzaindia / R.A.L.V. , XXX+569 orr.
- HOUEBINE Anne-Marie, 1985, Pour une linguistique synchronique dynamique, *La Linguistique*, 21, Paris, Presses Universitaires de France, p. 7-36.
- LAFITTE Pierre, 1944 (1962), *Grammaire basque* (Navarro-labourdin littéraire), Édition revue et corrigée, Bayonne, Elkar-Ikas, 490 orr.
- MARTINET André, 1990, La synchronie dynamique, *La Linguistique*, 26, 2, Paris, Presses Universitaires de France, p. 13-23.
- POTTIER Bernard, 1992, *Sémantique générale*, Paris, P.U.F. , 237 orr.

³ Nozio hori André Martinet-ek haren biziaren azken aroan bultzatu zuen. Sarrera batez ikus Houdebine (1985) eta Martinet (1990).

- QUEHEILLE Patrick, 1998, *Herriko semeak pastoral*, Barkoxe, 135 orr.
- REBUSCHI Georges, 1979, Autour du passif et de l'antipassif en basque biscayen (sous-dialecte d'Oñate), *Relations prédicat-actants dans les langues de types divers II*, Paris, Selaf, 149-170 orr.
- RIJK Rudolf P. G. de, 2001, Antipasiboak euskaran, txostena, *Lafitteren sortzearen mendemuga*, Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. Biltzarra, Baiona, 2001 / 9 / 20.

Battittu COYOS
UMR 5478